

ezagutzen al duzu Donostia?

Durandegi

Igeldo herriko *Ibaetaldia** edo *Euteraldia** mazelako auzoan aurkitzen da *Doandei* baserri zaharra. Dena dela, *Durandegi* da bere izen ofiziala, hots, abizenek, «Duran» delako baten etxea zela dirudi. Durandegi abizenak gaur egun ere irauten du Donostian.

Etxe zahar hau XVI. mendean eraikia da, ondoren dirudienek XVIII. mendean handitu egin zuten eta garai haietan utzi zuten bezala daukagu gaur gure begien aurrean.

Etxearen horma zaharrak, mendetan zehar haize eta curiak zartatuak, aire misterioitsu bat ematen dioten ereinotz edo erramu zuhaitz ederrez inguratuak daude, etxeari itzala eginez eta hego-mendebaleko erauntsietatik babestuz.

Doandei baserrian, «Santakruz gurutzeak» ** ate, leiho, txabola, soro edo baratzetan jartzeko ohitura zaharrari eutsi zaio. Ohitura jarraituz etxeko ate nagusian gurutze landu bat jartzen zen urtero, beste gurutze txikiagoak eta landu gabeak beste ate, leiho edo txaboletan horma tarteko zirrikituaz baliatuz jartzen direlarik; sobera direnak soro eta baratzetan makilatxo baten gainean jartzen dira. Honela etxea, etxe barrukoak, abereak, landare eta barazkiak



Durandegi baserriko hegoalde eta mendebaldeko orma zaharrak. Argazki Txikian: Durandegi baserriko Santa Krutz gurutzeak.



Durandegi baserriko atari-aurrea.

babesten dira etsai eta gaitz guztietatik.

* Igeldo herria antziatik bi «auzo», «alderdi» edo «bailaratan» zatitua dago: *Arrokaldia*, Igeldo herriko itsas aldera begira dagoen mazelari deitzen zaio; *Ibaetaldia* eta *Euteraldia* berriz, Igeldo men-

diko hegoaldea da, Ibaeta auzoa eta Usurbil herri aldera begira dagoena.

**Santakruz gurutzeak «Erramu-igandez» bedeinkatutako ereinotz edo erramu-arbasten egurrarekin egiten dira eta honekin gurutzeak osatu ondoren etxean jartzen

dira Santakruz egunez maiatzaren 3an. Etxe batzutan gainera, Kandelarian bedeinkatutako kandelan trantto bat edo beste botatzen diote «efektu» gehiago egin dezan.

JOSU TELLABIDE
ARGAZKIA: XIMON